

albokari en

Hernani 2011

hernaniko 18. topaketa



egitaraua

URRIAK 7, ostirala
19:30etan, Sandiusterrri aretoan
Bizkaiko ADARROTS taldearen
Alboka KONTZERTUA

URRIAK 8, larunbata
10:30etan, Hernani Musika Eskolan
ALBOKA MIDI'aren AURKEZPENA
Panderu jole, albokari eta alboka zale guzientzat

12:00etan, Alde zaharreko kaleetan zehar
Albokari taldeen kale-bueltak

14:30tan, Santa Barbara Elkartean
Herri bazkaria albokariekin
(Partehartzaile ez direnek 20 euro ordaindu behar dituzte)

18:00etan, Ezkiaga pasealekuan (Tilosetan)
ALBOKALDIA. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde eta
Nafarroatik etorritako albokari taldeen emanaldia.
Albokagileen azoka eta erakusketa. Bertan alboka
egiteko hauen trebezia eta azken berrikuntzak ikusteko
aukera izango da

Oharra: eguraldi burre egingo bala, Ezkiaga pasealekuan
antolatutako guztia Absegindegi plaza estakan egingo
litzateke

Harremanetarako: Hernani Musika Eskola Publikoa

Telefonoa: 943 337 050

ePosta: Haritz Ezeiza: haritzezeiza@yahoo.es

Juan Mari Beltran: jm-beltran@hernani.net

Antolatzailea:



Hernani Musika Eskola Publikoa
Albokari taldea

Laguntzaileak:



Babeslea:



Hernaniko
Udala

ALBOKARIEN HERNANIKO 18. TOPAKETA

Hernani, 2011ko Urriak 7-8

Badira 17 urte hasi zela Albokarien Hernaniko Topaketan bidea. “*Hernani Musika Eskola Publikoko Alboka taldea*”k antolaturik eta Euskal Herriko Albokarien laguntzarekin, 1994.urtez geroztik, hutsik egin gabe, urtez urte Albokarien Hernaniko Topaketak antolatu ditugu.

Beti ere, kontutan hartu behar dira topaketa hauen helburu nagusiak: Euskal Herriko albokari eta Alboka ikasleei elkar ezagutzeko eta elkartzeko aukera ematea. Alboka munduan ematen ari diren berrikuntzak eta lantzen ari diren musikak, ezagutarazteko aukera ematea. Jende arruntari, eta bereziki gure eskualdekoei, soinu-tresna hau, bere musika ezagutarazte eta gerturatzea direlarik.

Aurreko hamazazpi edizio horietan Albokaren eta Albokarien proiektu asko azaldu dira eta aurtengoa bide horretako beste urrats bat izango da.

Horrela, Euskal Herriko Albokarien Hernaniko 18.Topaketa 2011ko Urriaren 7 eta 8an ospatuko ditugu.

Aurrekoetako eskema jarraituz, topaketa honetarako egitarau interesgarria osatu dugu, honela, Urriaren 7an, Ostirala, Bizkaiko Adarrots taldeak bere kontzertua eskainiko digu, Hernaniko Saindiusterri aretoan.

Urriaren 8an, Larunbateko topaketari hasiera emateko berriz, “Alboka MIDI”-aren aurkezpena edukiko dugu, Gasteizko Alboka eskolaren eskutik, Hernaniko musika eskolan, pandero jole Albokari eta Alboka zale guztientzat.

Ondoren Euskal Herriko eskualde ezberdinetatik Hernanira etorritako Albokarien kale bueltak, bazkariak eta emanaldiak izango dira egun guztian zehar.

Bestalde, gaur egungo Alboka egileak ere, beraien postuak jarriko dituzte egungo berrikuntzak ikus ahal izateko. Beraz, Alboka musika ez da faltako Hernani aldean. Honenbestez gonbitea luzatua geratzen da.

Adarrots Taldea

Bere kulturaren ikurra den Euskal Herriko folk tradizionala iraunaraztea xedetzat harturik, denok dugu gogoan zazpikote bizkaitar honen hastapena. Atoan ekin zioten behinolako erritmo nahiz doinuak egokitu eta gaurkotasun handiagoko musikekin nahasteari; gisa honetan, zenbait bizipen eta gertaera txundigarritara helarazten gaituen musika iradokitzailea sortu dute, non iraganak eta eguneroko bizimoduan egiten ditugun urratsek bat egin duten.

Lausengu eta losintzek gozotzen duten une zoragarria ari da bizitzen Adarrots. Izan ere, eskertzekoa da herri honen ondare aberatsari eutsi eta gure mintzaira musika bilakatzea. Bihotzetik taupaka jaulkitako musika, gainera; norberaren eskarmentuan, herri kantetan, olerkietan edota kondairetan oinarritutakoa. Begi-bistako emaitza erdieste aldera sakontasunez arakatu dute hainbat erritmo eta tresnek eskaintzen duten baliabide oro, hau dela kausa, grinaz jositako zuzeneko eta melodia dinamikoak borobiltzen dituzte. Folk musikak irudikatzen duen tradizioari leial eta iraganari muzin egin barik, berau gaurkatzeko ahalegin zintzoan dihardute.

Lan eskerga honen saritzat jo daiteke Mendebala Folk Jaialdiak antolaturiko 2.009ko Folk Talde Hasiberrien IV. Lehiaketa irabazi izana. Honi esker, Balea estudioetan Asier Ercilla teknikari zebilela, beren lehen disko eredugarria *Haizekadak* grabatu ahal izan zuten.

Agerpen gogoangarri honek akuilaturik, 2010ean Kordoban ospatu zen Eurofolk Jaialdiaren IV. edizioan garaile suertatu zirenez gero, Europako talde anitzekin (irlandar, italiar edo portugaldarrak, besteak beste) lehiatu behar izango dute sari nagusia eskuratuko badute.

Aurton Buru Osasunaren Nazioarteko Egunerako kanta egiteko hautatu dute Adarrots Euskal Autonomia Erkidegoan.

Lurrak, usadioek eta bihotzak soinu betetzen dute Adarrots. Esandakoaren adierazle dira emakume ahots ezti eta sorgingarria samurkiro aterpetzen duten musika tresnak: energiaz gainezkako alboka, soken koloretasuna, txirularen kemena, klarinetearen baretasuna eta perkusioen indarra. Horrela, Adarrotsen musikak berdin dantzarazi edota malenkonian murgilaraz gaitzake. Aniztasuna maisutasunez jorratu eta honek ematen duen parada miretsiz, sentsazio ugari eta bereziak sorrarazten dizkigun musika sortzean dago gako.

ALBOKARIEN HERNANIKO 18. TOPAKETA

Hernani, 2011ko Urriak 7-8

EGITARAUA

Urriak 7 Ostirala

19:30etan, Sandiusterri aretoan, Bizkaiko Adarrots taldearen emanaldia.

Urriak 8 Larunbata

BERTAN BEHERA GERATU DA 10:30etan, Hernani Musika Eskolan, “Alboka MIDI” aren presentazio tailerra, Pandero jole, albokari eta Alboka zale guztientzat.

12:00etan, Albokari taldeen kale bueltak herriko alde zaharreko kaleetan zehar.

14:30etan, Santa Barbara Elkartean, Herri bazkaria Albokariekin,
(Parte-hartzaile ez direnek 20 euro)

18:00etan, Ezkiaga Pasealekuan (Tilosetan): **ALBOKALDIA**. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparraldea eta Nafarroatik etorritako Albokari taldeen emanaldia. Alboka egileen azoka erakusketa bertan izango delarik.

Harremanetarako: Hernani Musika Eskola. Tlf. 943 337 050

Haritz: haritzezeiza @ yahoo.es

Juan Mari Beltrán: jm-beltran @ hernani.net

Antolatzailea: Hernani Musika Eskola Publikoa – Albokari taldea

Babeslea: Hernaniko Udala

Laguntzaileak: Santa Barbara Elkartea, Herri Musikaren Txokoa